

1. SOZIOLOGIAREN IKUSPEGIA

1.1.-Gizartearen esperientzia.

Zer da gizartea guretzat?. Beste jendearekiko dugun harremanen esperientzia. Gertaera hori unibertsala da, hots, une eta toki guztietan ematen den esperientzia.

Nolakoak dira esperientzia horiek?. Maiztasunaren arabera **ezustekoak** edo **ohiturazkoak** izan daitezke. Gehien-gehienak bigarren mota honetakoak izaten dira. Horrek esan nahi du molde jakin bat jarraitzen dutela, **egitura** errepikatu bat izaten dutela, alegia. Egitura horiek aztertu nahi dugu Soziologian.

Gertaerak sailkatzeko beste irizpide batzuk erabil dezakegu: **aurrez-aurre** ematen diren esperientziak edo **egitura zabal eta anonimoetan**.

1.2.-Soziologiaren agerpena eta lehenengo garapena.

Gizartearen esperientzia arazo bat bihurtzen da ezustekoak edo krisiak ematen direnean. Arazo horren aurrean historian zehar eman diren erantzun gehienak erlijiosoak edo mitikoak izan dira. Filosofiaren agerpenarekin hasten dira erantzun kritikoa, eta testuinguru horretan sortu ziren gizarte-zientziak.

Edozein ikasgairen bilakaera aztertzeko hiru aro edo une bereiz daitezke:

- 1)**Ikasgai intelektuala** denean
- 2)**Ikasgai akademikoa** bihurtzen denean
- 3)**Egitura intelektuala eta soziala** izatea lortzen duenean

Normalean batetik bestera igarotzeko pausoak une historiko (egoera soziopolitiko eta kulturala) jakin batzuetan ematen da. Soziologiaren kasuan hauek izan ziren uneak:

- 1)**Agerpena** (ikasgai intelektuala):

Oraindik orain, garai honetan, Soziologia ez da agertzen ikasgai berezi baten moduan. Aurreko tradizioa jarraituz, gizarteari buruzko hausnarketa orokor bat izaten da, nahiko kritikoa gehienetan. Aldi berean, asmo praktikoak ere izaten ditu, alegia, krisi egoera baten aurrean gizartea era berri batean antolatu nahi da, protagonismoa talde sozial berriei emanez.

Garai honetako egileen inguruan zenbait mugimendu politiko-sozialak sortzen dira: marxismoa, saint-simonismoa, fourierismoa, e.a. Testuinguruari dagokionez, Frantziako iraultza eta Iraultza industrialaren unea izango da, horiek ekarri zituzten aldaketa guztiekin.

Egileak: Henri Saint-Simon (1760-1825)

Auguste Comte (1798-1857)

Alexis Tocqueville (1805-1859)

Karl Marx (1818-1883)

Herbert Spencer (1820-1903)

2) **Birplanteaketa** (ikasgai akademikoa)

Hemeretzigarren mendearen amaieran eta hogeigarrenaren hasieran bigarren iraultza industrialak ematen ari da. Mendebaldeko inperialismoa bete-betean hedatzen da mundu osoan zehar eta, industrializazioa aurrera eramanean duten lurraldeetan lanaren inguruko gatazka sozialak gero eta nabarmenagoak dira. Langileen mugimenduaren protagonismoa politikaren ardatza bihurtzen da.

Testuinguru horren barruan ahalegin bat egiten da gizarte zientziei zientifikotasunaren kutsua emateko. Elementu ideologikoak eta helburu politikoak albo batera utzita (asmoetan, besterik ez bada) ezagutza objektiboa bihurtzen da helburua. Horrela Unibertsitateko lehen katedrak antolatzen dira eta Soziologiaren sortzailetzat jotzen diren egileak agertzen dira.

Egileak: Emile Durkheim (1858-1917)

Max Weber (1864-1920)

George Simmel (1858-1918)

Ferdinand Tönnies (1855-1936)

Vilfred Pareto (1848-1923)

3) **Egituraketa** (egitura intelektuala eta soziala)

-Munduko 2. gerraren ostean. Lanbide berriak sortu dira eta Unibertsitateen masifikazioarekin fakultateak, batzarrak, aldizkari espezializatuak, e.a.

Egileak: R.K. Merton, Talcott Parsons, C.W. Mills,

1.3.-Soziologia kontzientzia era bezala.

Ikuspegi berri batetik ulertzen dugu gure eguneroko mundua kontzientzia soziologikoa erabiliz. Ikuspegi horrek honako ezaugarri hauek izaten ditu:

1) **Desmaskaratzaila**. (Azalaren atzetik dagoena erakusten du)

Asmo honen adibideak:

- a) Nahigabeko ondorioen azterketa.
- b) Prozesu sozialen izaera autonomoa
- d) Ideologiak

2) **Gizartearen alde ez errespetagarriak erakusten ditu**.

Hala ere nahiko kontserbakorra da orokorrean

3) **Erlatibizatzailea**.

Aldakortasun eta mugikortasun soziala azpimarratzen ditu.
Baloreak erlatiboak dira

4) **Kosmopolitismoaren aldarrikatzailea**.

Kultura jakin baten mugak gainditzen ditu ikuspegi unibertsal bat erakusteko, aldi berean, kultura bakoitzaren handinahiak zalantzan jarritz.

1.4.-Metodo zientifikoa soziologian.

Gizartea irizpide zientifikoekin ezagutu eta ulertu nahi duen zientzia da soziologia. Hori dela honako printzipioak errespetatu behar ditu:

- Objetibotasuna
- Unibertsaltasuna
- Metodo enpirikoen erabilpena

Baloreekiko neutraltasuna bilatu behar da.

Bere helburu nagusiak, helburu teorikoak izan behar dira.

1.5.-Ikerketaren faseak.

Ikerketa motak:

- Esploratzaileak (Hastapenezkoak)
- Deskribatzaileak
- Azaltzaileak.: -genetikoak (historikoak)
 - funtzionalak
 - kausalak

1) **Arazo edo gaiaren definizioa**.

Zein den aztertuko dugun gai edo arazo zehatza eta honekin lotuta dauden kontzeptu nagusien definizioa.

2) **Literaturaren azterketa**.

Gaiak edo arazoak ez dira erabat berriak izaten. Horrekin lotura duten argitarapenak eta ikerketak, baita teoria nagusiak aztertu egin behar dira.

3) Hipotesiaren eraketa.

Aldagaiak eta beraien arteko balizko harremanak aurkeztuko dugu.

4) Ikerketaren diseinua.

Ditugun baliabideak, ikertuko dugun unibertsoa eta analisirako unitateak zehaztu beharko dugu.

Ikerketa motaren arabera erabiliko ditugun teknikak finkatu behar dugu, baita haien biderapen praktikoa.

Tresnak edo baliabide teknikoak:

- Inkestak.
- Behaketa partehartzailea.
- Eztabaida taldeak
- Elkarrizketa ez-bideratuak.
- Edukien analisia.

5) Datuen bilketa

Laginaren aukeraketa, galdera sortaren prestaketa, datu biltzaileen prestaketa, bilketa materiala.

6) Datuen analisia

Harreman estatistiko interesgarriak, deskribapen zehatzak.

Kualitatiboak badira adibide moduan jarriko dira.

7) Ondorioak.

Zer nolako aurkikuntza interesgarriak egin diren eta nola integratzen diren indarrean dauden teorietan.